



Ebazpena, 2021eko martxoaren 2koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, ikertzaile doktoreen 2021erako Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunek atzerriko lantokietan egiten dituzten egonaldietako ostatu-gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia ebazten duena (Ikermugi+).

Hezkuntza sailburuaren 2020ko abenduaren 22ko Aginduaren bidez (abenduaren 31ko EHAA, 262. zk.), 2021ean doktoreak diren ikertzaileen Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunen atzerriko destino-zentroetako egonaldietan ostatu-gastuak finantzatzeko laguntzetarako deialdia egin zen, eta Aginduaren 10. artikuluan jasotzen den bezala, honakoa

EBATZI DUT

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen 2021erako Hobekuntzarako Doktoretza Ondoko Programaren onuradunek atzerriko lantokietan egiten dituzten egonaldietako ostatu-gastuak finantzatzeko laguntzak, guztira 449.223,75 euro izanik.

Bigarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, jakinarazpena eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 2a.



ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA